



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO APIRILAREN 11N
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:

*** 2017KO MARTXOAREN 28KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2017ko martxoaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2016KO AZAROAREN 29AN MUNALURRA
KALEA 12 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO EMANDAKO UDAL BAIMENAREN
ALDAKETA ONARTZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0298

MUNALURRA KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20310520) ordezkartzan diharduen ITSASADARRA, S.L. administraileak, Munalurra kalea 12 etxean igogailua jartzeko udal baimenaren aldaketa eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko azaroaren 29an, MUNALURRA KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20310520) ordezkartzan diharduen ITSASADARRA, S.L. administraileari, Munalurra kalea 12 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

ALDAKETA

Orain berriz, MUNALURRA KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20310520) ordezkartzan diharduen ITSASADARRA, S.L. administraileak emandako baimenaren aldaketa eskatu du. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera aldaketaren helburua ondokoa da:

“Como mejora de esta propuesta se plantea la siguiente modificación al proyecto y restringida únicamente a la planta baja:



Usurbilgo Udala

- Cambio del trazado de la escalera para que ésta siga un desarrollo continuo en todas su plantas.
- Ejecución de un segundo acceso desde el exterior de forma integrada en la fachada de forma que se independice el acceso a las viviendas del acceso a las zonas de instalaciones.
- Generación de un espacio común destinado a la guarda de biciletas.”

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2017ko apirilaren 4ean ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

(...)

Ondorioz, aurkeztu den OBRA BAIMEN ALDAKETA-ri ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere, aurrez emandako baimenaren baldintzak mantenduz.

Edonola, behe solairuan eskailera trazatuaren aldaketaren ondorioz sortzen den gunen berriak, ezinbestean gunen amankomuneko azalera izan beharko du, hau da, jabe-kideen komunitateari dagokion elementu amankomun bezala erregistratu beharko da eta ezingo du inolaz ere jabetza partikularrekoa izan.

Gune berri horretarako sarrera ateak altxaeran erabat integratua egon beharko du eta zentzu horretan, ateak berak altxaeraren kolore bera izatea lehenesten da.

Aldaketa honek aurrekontuan izan dezakeen eragina Obra Amaierako likidazioan jaso beharko da, horren ondoriozko tasen likidaziora bideratuz.

(...)

Gauzak horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko azaroaren 29an Munalurra kalea 12 etxean igogailua jartzeko emandako udal baimenaren ALDAKETA onartzea MUNALURRA KALEA 12 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H-20310520) ordezkari-tan diharduen ITSASADARRA, S.L. administratibak eskatutakoaren arabera, ondorengo baldintzapean:

- Edonola, behe solairuan eskailera trazatuaren aldaketaren ondorioz sortzen den gunen berriak, ezinbestean gunen amankomuneko azalera izan beharko du, hau da, jabe-kideen komunitateari dagokion elementu amankomun bezala erregistratu beharko da eta ezingo du inolaz ere jabetza partikularrekoa izan.
- Gune berri horretarako sarrera ateak altxaeran erabat integratua egon beharko du eta zentzu horretan, ateak berak altxaeraren kolore bera izatea lehenesten da.



Usurbilgo Udala

- Aldaketa honek aurrekontuan izan dezakeen eragina Obra Amaierako likidazioan jaso beharko da, horren ondoriozko tasen likidaziora bideratuz.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

3.- ERMOTEGI HAUNDI BASERRIAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0508

MOISES ANDRES ZUBIRIA jaunaren ordezkartzan diharduen ADMINISTRACIONES JAVIER MONTERO S.L. enpresak, Ermotegi haundi baserrian igogailua jartzeko baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 27.462,19 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 132,46 €
	Fidantza (%120): 158,95 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2017ko apirilaren 4an KONTRAKO txostena eman du eraikinak lehen erabilera baimenik ez duelako. Hitzez hitz honela dio: “(...) **Ermotegi baserrian igogailua jartzeko Exekuzio proiektuari AURKAKO txostena idazten zaio, izan ere, eraikinak lehen erabilera baimena ez duen artean ez baita bideragarria bertan igogailua ezartzeko baimena ematea. (...)**”.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MOISES ANDRES ZUBIRIA jaunaren ordezkartzan diharduen ADMINISTRACIONES JAVIER MONTERO S.L. enpresari, Ermotegi haundi baserrian igogailua jartzeko udal baimena UKATZEA, eraikinak lehen erabilera baimena ez duen artean.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

4.- ERDIKO KALEA 6 ETXEAN BERRITUTAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ,04/2016-0063



Usurbilgo Udala

ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK etxean berritutako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu dute.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 23an, ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK etxeko igogailua berritzeko udal baimena eman zion.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	47.290,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hoberia igogailuari dagokion partidari (10.129,93 €) (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) -
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 128,47 €
	Fidantza (%120): 154,10 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2017ko martxoaren 17an ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Aurkeztutako dokumentazioarekin batera hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko apirilaren 5ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK, Erdiko kalea 6 etxean berritutako igogailuari lehen erabilera lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2016ko otsailaren 27an ezarritako 154,10€-tako fidantza (IE 6-2016) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari emango zaio.



Usurbilgo Udala

5.- LASER KEN, S.A. ENPRESAK, ATALLU INDUSTRIALDEKO ARMAIDA KALEA 2KO PABILOIAN JARRITAKO IGOGAILUARI ETA HAUNDITUTAKO BULEGOEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0080

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloian jarritako igogailuaren eta haunditutako bulegoen lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 28an, LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloian igogailua jartzeko eta bulegoak haunditzeko udal baimena eman zion.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	118.211,06 €
Obra amaierako aurrekontua:	118.211,06 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria igogailuari dagokion partidan (10.129,93 €) (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) -
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 226,61 €
	Fidantza (%120): 271,93 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2017ko martxoaren 2an LASER KEN, S.A. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren eta haunditutako bulegoen lehen erabilera baimena eskatu du. Aurkeztutako dokumentazioarekin batera hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egituraren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko apirilaren 4ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez.

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresak, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloian jarritako igogailuari eta haunditutako bulegoei lehen erabilera lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2016ko uztailaren 14ean ezarritako 271,93 €. €-tako fidantza itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

6.- LASER KEN, S.A. ENPRESAK, ATALLU INDUSTRIALEKO ARMAIDA KALEA 2AN ERAIKITAKO URBANIZAZIO OSAGARRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2015-0521

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloiari dagokion urbanizazio osagarriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko uztailaren 12an, LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloiari dagokion urbanizazio osagarria egiteko udal baimena eman zion.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	87.381,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.044,79 €
	Fidantza (%120): 1.253,75 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA


2016ko urriaren 6an LASER KEN, S.A. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, egindako urbanizazio osagarriaren lehen erabilera baimena eskatu du. Aurkeztutako dokumentazioarekin batera hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskatutako egokitzapenak egin eta dokumentazio osagarria aurkeztu ondoren, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, gaia aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko apirilaren 4ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresak, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2an eraikitako urbanizazio osagarriari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako 1.253,75 €-tako fidantza (IE 37 - 2016) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

7.- LASER KEN, S.A. ENPRESAK, ATALLU KALEA 18AN ERAIKI DUEN PABILOIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2006-0225

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu kalea 18an eraikitako pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Alkateak, 2005eko irailaren 19an, 2005/0708 dekretuaren bidez, LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu industrialdeko 5. pabiloian txapa ebakitzeko tailerra instalatzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	2.656,737,92 €
Obra amaierako ziurtagiria:	2.680.153,95 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2008ko ekainaren 16ean LASER KEN, S.A. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraikitako pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatu zuen.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskatutako egokitzapenak egin eta dokumentazio osagarria aurkeztu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, gaia aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko apirilaren 4ean lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresak Atallu kalea 18an eraki duen pabiloiari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

8.- MARI JOSE ALTUNA ARTOLA ANDREAK KALE NAGUSIA, 10 BEHEAN BERRITU ETA HANDITU DUEN OKINDEGIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ,05/2015-0474

MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Kale Nagusia, 10 behean berritu eta haunditu duen okindegiaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak , 2016ko otsailaren 8an, MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereari Kale Nagusia, 10 behean kokatua dagoen okindegia berritu eta haunditzeko udal baimena eman zion.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	56.460,98 €
Obra amaierako ziurtagiria:	56.460,98 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.331,26 €
	Fidantza (%120): 1.597,50 €.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2016ko abenduaren 2an MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, egindako obraren lehen erabilera baimena eskatu du. 2017ko urtarrilaren 23an berriz, obra amaierako dokumentazio osagarria aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2017ko apirilaren 3an obra amaierari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: MARI JOSE ALTUNA ARTOLA andereak Kale Nagusia, 10 behean berritu eta haunditu duen okindegiari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako 1.597,50 €-tako fidantza (IE 18 -2016) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:54ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.